

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ibero dorrearen zaharberritzea, Leitzako Erdi Aroko burdinolaren multzoa berreskuratzeko lehendabiziko pausoa

Ana Herrera kontseilariak lanak bisitatu ditu Leitzako eta Goizuetako udalekin sinatutako lankidetzaren harira

Asteazkena, 2018.eko maiatzak 23

Kultura, Gazteria eta Kiroleko kontseilari Ana Herrerak Leitzako Ibero dorrea zaharberritzeko lanak bisitatu ditu gaur goizean, multzo historiko hau zaharberritu eta ezagutzera emateko Leitzako eta Goizuetako udalekin sinatu duen lankidetzaren harira. Eraikin-multzo honek, dorrea ez ezik, Erdi Aroko burdinola baten aurriak, Erdi Aroko zubia eta baserri bat ditu.



Martínez, Ana Herrera, Loiarde, Fránchez eta Zabaleta, Ibero dorrearen bisitan.

Ibero dorrea zaharberritzeko lehendabiziko lanak 2017an hasi eta joan den martxoaren 12an berrabiatu ziren, urte bukaerarako osatzeko asmoz. 2006tik 2009ra bitartean teilatua eta solairuak amildu zitzaizkion dorre honen zaharberritzea ondare-multzo historiko hau berreskuratzeko lehendabiziko urratsa baizik ez da, izan ere, baliteke Nafarroan kontserbatutako Erdi Aroko industria-gune bakarra izatea. 2011n, Leitzako udalak eraikinak eta lurzorua erosi zituen, bertako ondare materiala eta immaterialari eusteko asmoz. Ingurua eta Erdi Aroko zubia Goizuetako udal-mugartearekiko mugan daude, herri horren erdigunea dorretik eta burdinolatik bi kilometro eskasera kokatuta baitago.

Ingurua bisitatu ondoren, zaharberritu eta biziberritzeko lankidetzaren harira sinatu da Goizuetako Udaletxean.

Nafarroako Gobernuak bere gain hartu du dorrea zaharberritzeko lanen kostua, 445.257 euroko zenbatekoarekin, eta Leitzako eta Goizuetako udalek beharrezko eginahal guztiak egingen dituzte inguru horretarako sarbidea bermatzeko, ibilbideak eta aparkalekua jarritz, aldameneko baserria kontserbatuz eta Erdi Aroko burdinolaren aurriek dagokien balioa emanez.

Hitzarmenean jaso den bezalaxe, Iberoko ingurua zaindu, mantendu eta ezagutzera emateko bideratu beharreko ekintza guztien artean, bi udalek auzolana bultzatuko dute, komunitatea eta lurraldea ondare

kulturalaren biziberritze eta zabalkundean uztartzeko asmoz.

Era berean, Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko du Erdi Aroko zubia eraberritzeko eta oinarrizko sarbidetzat egokitzeko proiektua aurrera ateratzeko ardura. Proiektua lizitazio-prozesuan dago jadanik, 150.000 euroko aurrekontuarekin.

Bisitari parte hartu dute, halaber, Ondare Historikoaren Zerbitzuko zuzendari Carlos Martínez Álavak, dorrearen proiektuaran arduradun José Luis Fránchezek eta, hurrenez hurren, Leitzako eta Goizuetako alkate diren Mikel Zabaletak eta Unai Loiartek.

Zutik XIV. mendeaz geroztik

Ibero dorrea Erdi Aroko burdinola zaharreko industria-guneari atxikita dago, Leitzako udal-mugarlean kokatuta. Dorreaz gain, esparruan Erdi Aroko zubia, burdinolaren aurriak eta erabiltzen ez den baserri bat daude. Aipatutako elementu guztiak leku txiki-txikian pilatuta egotea da gunearen bereizgarria.

Dorrea XIV. mendean eraiki zen, Karlos II.a Evreuxkoaren erregealdian (1349-1387), burdinolak Gaztelarekiko mugaldetik behin eta berriz jasan behar zituen erasoetatik babesteko asmoz. 14 metroko luzera, 10 metroko zabalera eta 10 metroko altuera dituen dorre angeluzuzena da, jatorriz altuera handiagoa izan zuena. Erdi Aroko elementuei dagokienez, jatorrizko zortzi gezileihoak daude (halaxe deitzen dira, balaztariak erabiltzen baitzituzten dorrea defendatzeko), baita kareharrizko dobelak dituen puntu-erdiko arku ere.

XX. mendeko 70eko hamarkada arte, dorrea etxebizitza gisa erabili izan zen, eta 80ko eta 90eko hamarkadetan nekazaritza-tresnak gordetzeko biltegi bihurtu zen, baserriaren osagarri.



Zaharberritze-lanetarako bisita.